

## 4.2. Gaiaren lanketa

### > Hiztegiaren lanketa



- Ene, amama, zein begi handiak dituzun!

• Gorputz-atalak: Deskribatu

#### Helburuak

- Gorputz-atalen hiztegia ikastea.
- Adjetiboak gogoratzea.

#### Prozedura

- Gelako umeekin hiru talde egin.
- Talde bakoitzari "B" fitxetako bat banatu; talde bakoitzari ezberdina.
- Talde bakoitzak egokitu zaion pertsonaiaren gorputz atalak deskribatu.
- Talde handian, ume bakoitzari "A" fitxa banatu.
- Talde bakoitza denen aurrera irten eta egokitu zaion pertsonaia deskribatu, besteek "A" fitxan kopiatu.
- Denek beraien pertsonaia deskribatu dutenean, denbora eman egokitu zaien taldearen deskribapena norberaren fitxan kopiatzeko.